



MUSIKA

Freskotasuna eta barietatea



E. MORENO ESQUIBEL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Azken denboraldietan ohikoa izan den moduan, OLBEk errezitaldi polita prestatu du denboraldiko azken titulurako, *preludio* gisa balio izan duena.

Opera eta zarzuela nahastea ideia bikaina izan da. Izan ere, askok uste dugu ez litzatekeela ideia txarra izango noizbait *genero txikia*-ren tituluren bat sartzea OLBEren denboraldietan.

Aldi honetan, ikusi ahal izan dugu zein ondo egokitu diren bi bakarlarien ahotsak eta kantatzeko moduak bi estilo horietara. Emaitza izugarri atsegina eta arina izan da.

Nobedade gisa, Maite Marín akto-reak errezitaldiko pieza guztiei jarraipena ematen dien gidoia antzestu du, asmo komikoarekin. Egia esan, elementu hori sobera egon da eta ez dio ekarpen handirik egin saioari.

Juan Jesús Rodríguez baritonoak ahots handia eta segurtasuna erakutsi ditu errezitaldi osoan. Nazioarteko baritono verdiar onenetakotzat jotzen da, eta egiaztatu ahal izan dugu zergatik kontsideratzen den horrela. Bai Leoncavalloren *I Pagliacciren Si puo?* arian, bai Verdiren *Don Carloren Io morirò, ma lieto in core* kantan, kantu dotorea eta ahotsaren biribiltasuna erakutsi ditu.

Gaueko beste protagonista ere, Graciela Moncloa sopranoa, esperotako mailan egon da. Interpretatu dituen bi opera ariei esker –*O mio babbino caro*, *Gianni Schicchirena* (Puccini), eta *Sola, perduta e abbandonata*, *Manon Lescautena* (Puccini)–, emozioz beteriko abeslaria aurkitu dugu, bere ahotsa ezin hobeto egokitzen baitzitzaion Pucciniren paperei.

Bigarren zatian, zarzuelari eskainitakoan, interpreteen freskotasunak eta

OLBEk antolatutako opera eta zarzuelako errezitaldia. **Bakarlariak:** Juan Jesús Rodríguez (baritonoa), Graciela Moncloa (sopranoa). Piano-jotzailea: Manuel Burgueras. **Narratzailea:** Maite Marín. **Egitaraua:** Leoncavallo, Puccini, Verdi, Turina, Serrano, Torroba, Chapí eta Sorozabalen lanak. **Lekua:** Euskalduna Jauregia (Bilbo). **Data:** apirilaren 20a.

generoa menderatzeak ikusleei asko gozarazi die, zalantzarik gabe.

Sopranoa eta baritonoa nabarmendu dira interpretatu dituzten erromantzeetan, baina onena programako azken duetan iritsi da. Bi bakarlariak bikain aritu dira Chapíren *Por qué de mis ojos* (*La Revoltosa*) eta Pablo Sorozabalen *Hace tiempo que vengo al taller* (*La del manojo de rosas*) lanetan. Azken honetan bereziki interpretazio harrigarria izan dute Graciela Moncloak eta Juan Jesús Rodríguezek. Nolako gogoia piztu zaigun guztioi zarzuela eder horren –Sorozabalen harribitxi bat– antzezipen on batera joateko!

Propina gisa, Rodríguezek Guridiren *Sasibil, mi caserío* erromantzaren bertsio dotorea oparitu digu. Amaiera ederra. ●